

NEGUAREN EGONA

Etzaigu eder asko luzatzen duen gauza; are gutxiago go-gaikarri ba zaigu. Orrela izan oi da legua bere elur, euri ta otzarekin. Aurtengoa aski xamar luzatuz dijoa. Ala ere bukatuaz? Ba liteke. Baiña, iñoizka ba daki bereak egiten, ezkutaratzekoa egin eta gero, guk gutxien uste dugunean bat-bateko agerpen latza berriro egin. Ez da bat-ere obe izaten, kimu, lore ta gaiñerakoak, zerbait aurreratu zaizkigunak on-daturik uzten dizkigu ta.

Doiñu: Xenpelar-en «Gizon bat ikusi det...».

Negua, naiz ez ernai, ba *doa* gorantza:
«Neguaren biotza San Bizente otza».
Elurra ere izan da; muiñoak oraindik
maindira zuriz daude segail (1) estalirik.

Gesuko lanik ez dut atariz kanpora;
ausnarka dut kortea; nadin su ondora:
gu bai negu beltzeko illun-abarretan
goxo gaudela, lasai! , sukalde onetan.

Neguz dago bildurik sendi euskalduna,
uda ta udazkenez eziña duguna;
guraso ta semeak alaiki supazter...
Lurrean ba ote da oberikan ezer?

Zurbil ta errukarri milla bider dana,
sutondoan mintzorik ez dan etxe barna.
Euskal sendiak badu orren arriskua,
ekaitzak ots dagi-ta, etsaiak puztua.

(1) Apain,

Maiz esan dit Jone-k, irri-parretsua:
«Lana bezain bearra dugu barne sua;
familiko bizitzak urrea dirudi,
epea billaturik bear dugu igurdi».

Emaztea dut ziñez lagunik leunena,
eta umeak ditugu altxorrik onena.
Maite nik emaztea andregai nuela,
orain nai dut jagon nere giltz bezela.

Bere iritzi-esanak lotsaz ditut artzen;
itzez, egitez ta arpegiz mee natzaio usten;
biotza du maitetsu, goiz-kerexa bezain,
muin-barruz gozatsua, ta kolorez bikain.

Aren ederrak lorrai poz ematen die,
t'ezpanai irriparez ezta darie;
zindo dakust aurrekin aren eziketa,
bigun ta jakituriz beti alkar-izketa.

Biori zaigu eder buruz jokatzea,
elkarri erakutsiz bear dan lotsea:
neri dagokit lana kanpo ta ukulluan,
ura etxekoandre bedi sutonduan.

Ez diot nik iñori legerik jarriko,
bakoitzak osa beza bere egiteko;
dan legez ar bakoitza, zein eder zein zatar:
lege onen aritik egin bide azkar.

Uskeriz ez egundo iskanbilla atera,
argia ta illuna bijoaz batera;
egunari berea emanez leialki,
or-ango albisteak ez puztu arroki.

Sua da dirdiratzen enbor-ertz erdian,
poz dauzkagu biotzak pakezko ozkarbian.
Amonak zizaillutik diardu ipuinketan,
aur ta nausi gaitula adi ezpañetan.

Zuri-zuri elurra teillatu erlaxean,
izotz ziztorra dindil xorta etengean...
Gu gauden orain beintzat maitasun kantari,
ederra egiñikan supazter onari.

OTSAILLEZ

Neguak, ba, ematen digu astia epez ipui ta elezar kontaketan jardun al izateko. Bere zoroaldiak, orraitio, izan oi ditu, orain euri-zaparrada, odei-murru ta elur-malo etengabeak, eta gero eguzki epel gozatsua, gaixo ekarle galanta. Otsailla da ortan aukerako.

«Mutil koxkor bat,..»,

Zurubi gora Negu badoa,
otso illean sar gera;
atzo Eguzki-k txeraz dizkigu
izpiak igor lurrera,
eta otsailla izanik ere
badute lorak ernerera.
Baiña neguak oraindik duke
bere sumin esnaera,
bizkar gaiñetik astinduz zapla
berozko gili gupera.